

LAGUNTZA-PRODUKTUAK EROSTEKO DIRU- LAGUNTZA: GURPIL-AULKIA, AUDIFONOA,...

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Adingabea -18 desgaitasunareki > Diru-laguntzak zuretzat edo zure zaintzaileentzat

Fitxa osoa kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio laburtua.](#)

Zertan datza zerbitzu hau?

Laguntza ekonomikoa autonomia pertsonalean mugak dituzten pertsonen laguntzeko produktu berreskuraezinak erosteko eta, hala badagokio, instalatzeko erabiltzen da, bai autonomiaz moldatzeko aukerak areagotzeko, bai eguneroko bizitzako oinarritzako jarduerak egiteko beste pertsona batzuek ematen dieten laguntza errazteko ([fitxa 3.3.1](#)). Berreskuratu ezin diren laguntza-produktuak dira, beren ezaugarriak direla-eta, besterenezinak direnak eta, beraz, eskatzaile bakar bati edo, salbuespenez, hainbati aldi berean mesede egiten diotenak.

Nork jaso dezake zerbitzu hori?

- **Mendekotasun-egoeran** dauden pertsonak (I, II edo III graduak).
- **Desgaitasuna** duten pertsonak =>%33

Zein baldintza zehatz bete behar dira zerbitzua eskatzeko?

- Mendekotasun graduren bat onartuta izatea (I., II. edo III. gradua) edo %33ko edo gehiagoko desgaitasuna izatea
- Prestazioa eskatu zaion Foru Aldundiari dagokion Lurralde Historikoko udalerrri batean erroldatuta egotea aurreko 12 hilabeteetan.
- Kontzeptu beragatik azken 6 urteetan laguntza edo laguntza teknikorik jaso ez izana (salbuespenak izan ezik)
- Ezarritako gehieneko mugak gainditzen dituen diru-sarrerarik ez izatea.

Zenbatekoa da?

Ordainketa bakarra.Foru Aldundiek laguntza-produktu mota bakoitzerako gehienezko zenbatekoa zehazten dute.

Bateragarria al da beste laguntza batzuekin?

Edozein zerbitzurekin **bateragarria** da. Baita helburu bererako beste laguntza batzuekin ere, baldin eta jasotako prestazio ekonomikoen zenbateko osoak gailuaren zenbateko osoa gainditzen ez badu.

Nori dagokio zerbitzu hori ematea?

Foru-aldundien ardura da berreskuratu ezin diren laguntza-produktuak erosteko laguntza ekonomikoa ematea.

Non eska dezaket zerbitzua?

Prestazio honetan interesatuta bazaude edo gehiago jakin nahi baduzu, Gizarte Zerbitzuetan lan egiten duten pertsonekin hitz egin dezakezu. Nola funtzionatzen duen eta laguntza hori nola balia dezakezun azalduko dizute.Esaiguzu zure udalerria eta harremanetarako lekuak eta datuak adieraziko dizkizugu.

Zer arauk ezartzen du zerbitzu hori?

Zorroaren jatorrizko fitxarako sarbidea

Informazio gehiago:

- [Familia-inguruko zainketei laguntzeko prestazioa Araban](#)
- [Familia-inguruko zainketei laguntzeko prestazioa Bizkaian](#)
- [Familia-inguruko zainketei laguntzeko prestazioa Gipuzkoan](#)

[Fitxa laburrera itzuli](#)